



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO UZTAILAREN 26AN  
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Irene Gartzia Palaciossek eta Josune Estella Arranzek.

**1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA:**

**\* 2017KO UZTAILAREN 11KO BILKURAKO AKTA.**

Jone Urdanpilleta ez zenez uztailaren 11ko bilkuran izan abstenitu eginda.

Beraz, 2017ko uztailaren 11ko bilkurako akta gehiengoz onartua izan da, abstentzio batekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

**2.- ETXEBESTE KALEA 11 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0508

ETXEBESTE KALEA 11 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen BORJA MAIZ LARRINAGA arkitektoak, Etxebeste kalea 11 etxean igogailua jartzeko baimena eskatu du.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: <b>26.400,00 €</b>
<b>Obrari dagozkion hobariak:</b>	<b>% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)</b>
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 150,00 €
	Fidantza (%120): 180,00 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2017ko uztailaren 18an KONTRAKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio txostenak:



Usurbilgo Udala

UA2016\_OHAN\_36

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**OBRA HAUNDIAK**  
**ETXEBESTE KALEA 11AN IGOGAILUA JARTZEKO EXEKUZIO**  
**PROIEKTUARI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Etxebeste 11, ELIZALDEA EREMUA, Usurbil.

ESKAERA DATA: 2016eko abuztuaren 26

ESKATZAILEA: Etxebeste 11ko jabeakideak.

**ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2016-0407**

**PEM : 26.400euro**

**HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 150,0euro Fidantza**

**(%120): 180,0euro**

**HOBARIA:**

---

**AURREKARIAK**

- **2016eko abuztuaren 26an Etxebeste kalea 11ko jabeakideek igogailua jartze obra baimena eskaera egin dute Usurbilgo Udalean.**
- **2016ko urriaren 14an udal arkitektoak txostena jaulki zuen, besteren artean honakoa esanaz:**

*“- Behin zuzenketak aurkeztu ostean eta baimena eman aurrez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari egingo zaio kontsulta proposamena eta eraikinaren babes erregimenaren bateragarritasunaren inguruan, baimena emateko aldeko txostena ezinbestekoa izanik”.*

- 2016ko abenduaren 23an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen.
- 2017ko martxoan interesatuari dokumentazio gehigarria falta zela jakinarazi zitzaion eta Gipuzkoako Foru Aldundira txostena eskatu zen babes erregimena eta eskuhartzearen bateragarritasunaren inguruan.
- 2017ko maiatzaren 17an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen.
- 2017ko ekainaren 2an behean izenpetzen duen teknikariak bertaratzea egin du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Ondare Saileko arkitektoarekin eta aparejadorearekin.
- 2017ko uztailaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiko KONTRAKO txostena jaso da.

**TXOSTENA**

Borja Maiz Larrinaga jaunak, Etxebeste 11ko jabeakideen izenean, bertan igogailua jartzeko obren Exekuzio Proiektua aurkeztu du, hainbat dokumentazio gehigarriekin batean obra baimen eskaera eginaz. Aurkeztu dokumentazioa da, eskaera orriarekin batera; Exekuzio Proiektua arkitektoak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia (COAVN 2016-08-19). Baita ere aurkeztu dira, kokapenaren justifikazioa, eraikinaren planu osoak eta jabetza eskritura.



Usurbilgo Udala

Etxebeste Kalea 11 eraikina, indarrean diren Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Testu Bateginaren arabera (GAO 2013 09 11), hiri lurzoruan kokatzen da A-40 Elizaldea eremuan hain zuzen. Aurreko txostenetan aipatu bezala eraikina AASSTB-ren arabera A-40 Elizaldea eremuan, hiri lurzoruan kokatzen da. Dagokion Fitxan esaten denez, eskuhartzeek Elizaldeako Plan Berezian ezarritakoak bete beharko dituzte. Aipatu Plan Berezian Etxebeste kalea 11 eraikina zehazki 79. artikuluan arautzen da, non honakoa esaten den:

*“3. Condiciones previas: proyecto, informe y autorización del Dpto. De Cultura de la Diputación Foral y licencia municipal.*

*4. Valores patrimoniales a conservar: fachadas a la plaza y a la calle Trinidad, la primera, íntegramente con sus huecos de sillares y entramado de madera y la lateral con los huecos de sillares. Categoría 3ª.*

*(...)*

*6. Condiciones de diseño y construcción: Conservación de los valores de fachadas.*

*Puede admitirse una discreta recomposición a apertura de huecos en las fachadas laterales. Intervención mediante rehabilitación parcial o sustitución interna.”*

Altxaera eta mantendu beharreko elementuei dagokionean, 3. mailako babeseko eraikinetan 59. artikulua honakoa betearazten du:

*“2. En los edificios de categoría 2ª y 3ª deberán conservarse estrictamente los elementos de valor patrimonial existentes. Las fachadas y elementos alterados a través del tiempo requerirán un estudio justificado arquitectónicamente antes de ser sometida la solución a las autoridades patrimoniales competentes de la diputación Foral, óido el Ayuntamiento.”*

Beraz, igogailu berriak eraikinaren altxaera bati eragiten dionez eta edonola eskuhartzeak eraikinari kanpo elementu berri bat atxikitzen dionea, **ezinbestean udal baimena jaso aurrez Foru Aldundiaren Kultura Saileko aldeko txostena izan beharko zuela ondorioztatu zuen behean izenpetzen duen teknikariak aurreko txostenean.** Izan ere, Plan Berezian finkatzen denaren kalterik gabe, **teknikari honi ere zalantza handiak sortzen dizkio bolumen berri bat ondaren aldetik babestutako eraikinaren altxaera bati eransteak, babestutako inguruan.** Baita altxaeren konposizioan duen eraginagatik, estalkiaren gainetik amaitzen den neurrian.

Gauzak horrela, ekainaren 2an Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Ondare Saileko arkitektoarekin eta aparejadorearekin bertaratzea egin zen (ikus argazkiak). **Bertan ikusitakoarekin eta espedientearen datzatan proiektua aztertuta, Foru Aldundiko KONTRAKO txostena jaso da.**

### **ONDORIOAK**

Goian aipatutakoari jarraituz, -Etxebeste 11ean igogailua jartzeko Exekuzio proiektuari KONTRAKO txostena idazten zaio. Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe. Udalarari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2017ko uztailaren 18an.

UDAL ARKITEKTOA/ HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO  
BURUA                      Izta.: Ekhiñe Egiuren

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** ETXEBESTE KALEA 11 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen BORJA MAIZ LARRINAGA arkitektoari, Etxebeste kalea 11 etxean igogailua jartzeko udal baimena UKATZEA.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari ematea.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**